



Europako
Batzardea

LAN BILA EUROPAR BATASUNEAN

EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK

EUROPAR BATASUNEAN LAN BILA BAZABILTZA, BADITUZU ESKUBIDE BATZUK.



ENPLEGU-ESKATZAILE GISA, ZER ESKUBIDE DITUZU BIZILEKUARI BURUZ?

- > EBko herritar zarenez, EBko beste herrialde batera lan bila joateko eskubidea duzu.
- > Enplegu-eskatzailea zaren aldetik, ez duzu egoiliar gisa erregistratu behar lehenengo sei hilabeteetan, baina baliteke zure presentzia jakinarazi behar izatea iristen zarenean.
- > Jatorrizko herrialdeko langabezia-prestazioak kobratzen ari bazara, joan zaren herrialdeko enplegu-bulegoan alta eman beharko duzu. Zure familiak eta zuk zure jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren estaldura jasotzen jarraituko duzue (adibidez, gastu medikoetarako).
- > Sei hilabete igaro badira eta oraindik lanik aurkitu ez baduzu, nazioko agintariak egonaldia luzatzeko zure eskubidea ebalua dezakete, baldin eta honako hauek frogatu baditzaitezke:
 - > lan bila ari zarela aktiboki
 - > aurkitzeko aukera baduzula.
- > EBko beste herrialde batean lan egin baduzu eta zure enplegua galtzen baduzu, edo autonomia bazara eta jarduera hori egiteari uzten badiozu, herrialde horretan bizitzen jarraitzeko eskubidea izaten jarraitu dezakezu.
- > Egonaldiaren iraupena herrialde horretan lan egindako denboraren eta langabezian geratu zinenen zenuen kontratu motaren arabera izango da.

- > Gaixotasun edo istripu baten ondorioz lanerako aldi baterako ezintasuna baduzu, herrialdean gera zaitezke egoera horrek irauten duen bitartean.

- > Informazio gehiago:

https://europa.eu/youreurope/jobseekerresident_es



LANA BILA DAITEKE ATZERRIKO SEKTORE PUBLIKOAN?

- > EBko herritar zarenez, beste herrialde bateko sektore publikoan lan egiteko eskubidea duzu; adibidez, estatuaren enpresetan eta administrazio eta erakunde publikoetan.
- > Sektore publikoan enplegua lortzeko, litekeena da zure kualifikazioen aitortpen ofiziala behar izatea lan egin nahi duzun herrialdean.
- > Zure esperientzia profesionala ezin da gutxietsi EBko beste herrialde batean eskuratze hutsagatik. Soldata, gradua eta gainerako lan-baldintzak zehazterakoan, esperientzia konparagarriak modu berean aitortu behar dira.
- > Informazio gehiago: https://europa.eu/youreurope/public_es



LANGABEZIA-PRESTAZIOAK BESTE HERRIALDE BATERA TRANSFERITU DAITEZKE?

- > Langabezia-prestazioak jasotzen badituzu, prestazioak ordaintzen dituen herrialdean egon behar duzu.

- > Lana bilatzeko EBko beste herrialde batera joatea erabakitzen baduzu, lan egin duzun azken herrialdeko langabezia-prestazioak jasotzen jarrai dezakezu, **gutxienez hiru hilabetez eta gehienez sei hilabetez**, prestazioa ordaintzen dizun erakundearen arabera. Baina bakarrik egoera hauetan:
 - > **langabezia osoko egoeran** bazaude (ez partziala, ez aldizkakoa), eta
 - > langabezian geratu zaren herrialdean **langabezia-prestazioak jasotzeko eskubidea** baduzu.
- > **Langabezia-prestazioak transferitu ahal izateko**, beharrezkoa da gutxienez lau astez inskribatuta egon izana enplegu-eskatzaile gisa herrialdeko enplegu-zerbitzuetan. Horrez gain, zure enplegu-zerbitzu nazionalari U2 inprimaki bat eskatu behar diozu (lehengo E303); horrekin zure prestazioak esportatzeko baimena ematen duzu, beste herrialde batera joan aurretik.
- > **Lana bilatzen ari zaren herrialdera iristean, honako hauek egin beharko dituzu:**
 - > enplegu-eskatzaile gisa izena eman enplegu-zerbitzu nazionaletan, zazpi eguneko epean
 - > zure U2 inprimakia (lehengo e 303) aurkeztu
 - > langabezia-prestazioak eskatzen dituztenei herrialde berriak eskatzen dizkien kontrol guztiak onartu, herrialde horrek ordainduko balizkizu bezala.

- > **Langabezia-prestazioetarako eskubidea mantendu nahi baduzu, itzul zaitetz eskubidea iraungi aurretik, edo egun berean, langabezia-prestazioak ordaintzen dizkizun herrialdera.**
- > Informazio gehiago: https://europa.eu/youreurope/benefits_es

ZURE KASUA IZAN LITEKE Enplegu-eskatzaile gisa inskribatzea

Aisling Irlandatik Frantziara joan da lan bila, eta han enplegu-eskatzaile gisa inskribatu da enplegu-zerbitzu nazionaletan. Zazpi eguneko epean U2 inprimaki bat aurkeztu du, eta bizi den herrialde berriari langabezia-prestazioen eskatzaileei egiten zaizkien kontrol guztiak egitea onartzen du. Atzerrian hiru hilabete baino gehiago geratzea erabakitzen badu eta ordurako langabezian jarraitzen badu, luzapena eskatu beharko dio enplegu-zerbitzu nazionalari. Egoera horretan, egonaldia sei hilabetera arte luza dezake, baina agian frogatu beharko du hiru hilabetez lan bila aritu dela eta egonaldia luzatuz gero lana aurkitzeko aukera gehiago dituela.

INFORMAZIO GEHIAGO:
<https://europa.eu/youreurope/es>

© Europar Batasuna, 2018Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 2018
Baimena dugu berrerabiltzeko, iturri bibliografikoa aipatzekotan
Europako Batzordearen agiriak berrerabiltzearen gaineko politika Erabaki honek ezarri zuen: 2011/833/EB (DO L 330, 2011ko abenduaren 14koa, 39. orria).
Europar Batasuneko egile-eskubideen men ez dauden argazkiak edo bestelako materialak erabili edo erreproduzitzeko badira, titularren baimena eskuratu beharko da.

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2020ko martxoan

Ale-kopurua: 170 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.
Lehendakaritza

Internet: www.euskadi.eus

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 - Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: PRINTHAUS, S.L.

Lege-gordailua: LG G 00222-2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco